BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

6055

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 24koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 1902/11 prozedura arruntari buruzko administrazio-espedientea bidaltzea xedatu eta interesaturik egon daitezkeenak epatzen dituena.

1902/11 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espedientea –prozedura arrunta– bidaltzeko eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak. Errekurtso hori Justizia eta Herri Administrazio sailak 2011ko maiatzaren 23an emandako Aginduaren aurka jarri zen. Inpugnaturiko Aginduak ezesten zuen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak, 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan karrerako funtzionario izateko deitu zituen hautaketa-prozesuetako epaimahaiak 2011ko martxoaren 14an hartutako akordioen aurka interesdunak jarri zuen gora jotzeko errekurtsoa.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatuta, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak eskatutako administrazio-espedientea bidaltzea.

Bigarrena.–Aipatutako espedientean interesen bat izan dezaketenak epatzea, bederatzi eguneko epean ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salara, 1902/11 prozedura arruntean alderdi modura aurkezteko aukera izan dezaten.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen iragarki-tauletan argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 24a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.